

# Euskaldun ikurrina

**GAUR** betetzen dira ehun urte lehenda-biziko aldiz ikurrina publikoki ageritu zenetik, beraz, euskaldun guztientzat egun gozoangarria izan behar da: euskaldun ikurrinak bere mendeurrena ospatzen du eta. Dena dela, bere sorreratik gaur eguneraino iristeko bide korapilatsua ibili behar izan du.

Honela, 1897ko uztailaren 11n Sabino Arana eta Goirik 'Bizkaitarra' izeneko aldizkarian zera idatziko zuten: «Datorren asteazkenean Bizkaian Aberriaren ikurrina lehen aldikoz zintzilikatu zela hirugarren urtea (1894ko uztailaren 14a) beteko da», eta aurreragoan jarraituko du honela: «gure irakurteren artean askok aspalditik ikusi ez dutenez gero, nola den esango dugu: Hondoa gorri bizia eta beraren gainean San Andres gurutza edo zeharkakoa, berde kolorekoa; San Andres gurutze berdearen gainean gurutze zuzen edo ohizko txuria». Beraz, hau da Eusko Alderdi Jeltzalearen fundatzaileak, bere hitzak erabiliz, aberri-ikurrin bezala paratu zuena eta hau da, ez abertzaleek bakarrik denek baizik, Euskadik adierazten duena agertzeko onartzen dugun ikurra.

Baina, gure artean, gure Aberriaren hegoaldean, ikurrina normaltasun osoz zintzilikatu ikusi ahal izateko urte asko iragateaz gain mila izerdik, odol eta lan izan dira tartean. Boroak luze bat eraman behar izan da. Gerra bukatu eta laster jaio garenok, gure gaztedenboran ikurrina behar bezala bere duintasun guztiarekin zintzilikatu ikusi ahal izateko sasi-muga iragan eta Iparraldera joan behar izan genuela ongi baino hobeto dakigu eta honela, hemen guztiz debekatuta zegoenean 'beste aldeko' edozein udaletxetako

mastan airoski eta libreki ikusten genuen. Gogoan daukat ere nire herrian, Pasaian, noizean behin itsasoaren egoera zela eta, Hendaia eta Donibane-Lohizuneko arrantza-untzi batek edo bestek gure kaiara sartu behar zuenean gu, artean ia mukizuek, hara gindoazela, erdi bildurtuta erdi hunkituta untziaren mastan gure ikurrina ikustera.

Geroago, abertzale adoretasu batzuei esker, mila arrisku eta oztopo gaindituz, askatasunaren garrasi bezala sarrago ikusi ahal izan genuen: gaur eliza baten kanpandorrean, bihar mendik baten tontorrean, etzi erromeria batean, hurrengoan... Erantzun anker eta basatiak berehala zetozen: 'Orden Publikoko Indarrek' ikurrina eraazi, bota eta zanpatu egingo zuten, politikoez mespretxatu (oraindik politikan aritzen den batek esakun hura ahozkatu zuen: «ikurrina zintzilikatu aurretik nire gorpuaren gainetik pasatu beharko dute») eta gure arteko askok beste aldera begiratu zuten. Baina, zorionez, guzti hau jadanik historia da. Gaur egun nonnahi eta edonoiz gure bandera duintasun osoz harro-harro erakus dezakegu eta kasu patologiko bat edo beste alde batera utzirik, denengandik begirunea eta errespetoa hartzen du.

Gaur, ikurrinaren lehenengo mendeurrena dela eta, ez da alferrik izango ondoko hau gogoratzea: hasiera batean Euskadiko lurralde bakar batentzat eta erakunde berezi batentzat, hots, 'Euskeldun Batzokija' izenekoarentzat paratua izan zena, geroago eta euskotar guztien, hegoalde nahiz iparraldekoak izan, onarpenarekin, Euskadi osoaren ikur bihurtu dela. Honela, beste zenbait gauzaren bezala, Eusko Alderdi Jeltzaleak hasiera

batean berarentzat baino ez zena Euskadi osoari eskaini eta eman dio.

Beraz, ikurrina, bere hasierako alderdi-kutsua aldatuz, euskal gizarte osoaren zerbitzu bilakatu da. Horregatik, zenbaitetan gertatu den bezala, udako giro honetan eta herri desberdinetako jaien aitzakiarekin edo beste edozein aitzakiarekin talde politiko batek eta bere ingurukoek ikurrinarekin jokatu nahi dutenean eta berena bakarrik izango balitz bezala arma gisa erabili nahi dutenean, gure abotsa balitz bezala arma gisa erabili nahi dutenean, gure abotsa alixatu behar dugu eta esandako erabilpena arbuaitu eta salatu.

Ikurrina hasiera batean alderdi politiko baten jabeago bazen, hots, Eusko Alderdi Jeltzalearena, geroago honek ez du eragozpenik izan euskal gizarte osoari eskaini eta emateko, baina ez beste talde politiko baten eskuetan erori dadin, baizik eta gizarte osoaren jabeago izan dadin.

Nire iritiz ikurrinak, gure Euskadi osoaren ikurra izanik, abertzaleen aldetik maitasuna eta denon aldetik begirunea merezi duelakoan nago. Inork ez dauka eskubiderik arma bezala erabiltzeko, are gutxiago dagokion begirunari uko egin, batzuetan beltzez eta beste batzuetan kolore desberdinez margotzen dioten horiek. Ikurrina Arana eta Goiri anaiek paratu zuten bezala eta lan honen hasieran esana dagoen bezala, hiru kolore baino ez ditu: gorri, berde eta txuria, eta denona da, gainera.

**LUIS BANDRES UNANUE**

EJ-KO EBB-KOA

# Euskal semiologian barrena

**OHITUTA** gaude, Saussurez geroztik, sinboloei gagozkierarik, bi plano edo bi izari berezitan: 'adierazlearena' da bata, eta 'adieraziarena' bestea. Gauza bat da 'beso' euskal hitzaren soinu-multzoa bera, eta beste gauza bat lau segmentu foniko horien segidak euskal hiztunarengan sortzen duen balio semantikoa: soinatala, edo abar.

Bi alderdi horien arteko lotura ez da inondik ere ezinbestezkoa: hizkuntza bakoitzak bere lotura berezia dauka. 'Beso' sinbolo fonikoak oso gauza desberdinak adierazten ditu euskaraz eta gaztelaniaz.

Guztiz bide beretik: gorri koloreak arriskua adierazten du koda batean, eta sozialismoa bestean. Eta berdeak, era berean, pasa daitekeela adiera dezake; baina baita ekologia ere.

Sinbolo guztien bikoiztasun hau ukatzea, sinboloen beren funtsa ukatzea da. Ikurrina 'un trapu' besterik ez bada, roji-gualda ere beste zapi bat da; eta gurutze gorria zapi zuri baten erdian, beste zapi bat.

Roji-gualda ez da 'trapu' bat, eta ikurrina ere ez.

Hain zuzen ere, ikurrina 'trapu' bat dela esaten dutenek, ez dute inoiz ere izaten roji-gualda zapi bat besterik ez denik.

Ikurrina Euskal Herriaren sinboloa da. Zergatik ez ote zuten Arana-Goirik Nafarroako bandera onartzen hartu? Oihal gorria bere katekin erakusten duen sinboloak, oso adierazi konkretua zuelako: Nafarroa Errei-

nuaren sinboloa, hain zuzen. Eta Nafarroak, ezagutzen ditugun arrazionengatik, ez du gaur Euskal Herri osoa biltzen.

Antso Handiaren Nafarroak bai, geografikoki bederen. Baina Nafarroa hura orain dela mila urte suntsitu zen. Eta 'Navarra' erdal hitzak berak, beste adierazi bat bildu du. Balleite Arana-Goiri puntu honetan erratzea. Nork esan du Euskal Herriak eraiki zuten Nafarroa zabal hura, ezin izan daitekeela berriro ere geroko Euskal Herri Askatuaren Estatua?

Xabinek ezetz pentsatu zuen. Eta Euskal Herri Batua eta Askatua izendatzeko, 'Euskadi' hitza egokiago izango zela; eta katekin ikur gorria baino ere, berak asmatutako ikurrina zuri-gorri-berdea hobe izango zela.

Ehun urte joan dira, eta ikurrina Euskal Herri osoaren sinbolo bihurtu da. Hautaketa oker egin den ala zuzen, beste arazo bat da: Euskal Herriaren sinbolo bihurtu da ikurrina, bai guretzat bai kanpokoentzat.

Garai honetan, hain zuzen, urtero 'guerra de las banderas' delakoa errepikatzen denean, sinboloen funtsezko bitasuna gogorazi behar da. Gertakariak zuzen ulertuko badira, bederen.

Banderak, jakina, ez daude inolako oposizioan. Banderak oihal-atalak besterik ez balira, banderen arteko gerlak ez luke funtsik.

Baina banderak bi izaritako sinboloak dira. Adierazleak beren artean inolako aurkaritzan ez badaude ere, adieraziak elkarren kontra egon daitezke (eta egoten dira).

Euskal Herrian ikurrina eta roji-gualda (edo "le drapeau tricolore", Iparraldean) elkarren ondoan, "kupunaiña hunian", frontoinetan eta udaletxeetan aurkeztu nahi izatea, sinbolikoki gure nazio-arazoa ukatzea besterik ez da. Burgosen, Murcian eta Badajozen ez dira elkarren ondoan paratzen ikurrina eta roji-gualda. Iruñean edo Eibarren bai. Zergatik? Zergatik ez, bide beretik, Baionan eta Heletan?

Abertzaleok ez dugu batere gaizki ikusten ikurrina eta Nafarroako gorria katekin elkarren ondoan pasatzea. Nafarroa zaharraren eta Arana Goiren Euskadi Batu eta Askatuaren artean kontraesanik ez dagoelako.

Hain zuzen ere, 'Euskadi' hitzak balio semantiko errejionalista eta anti-abertzalea hartu duen heinean, alboratzeko joera azkartuz doa.

Halaz ere, Euskal Herri Askatu eta Batua adierazteko asmatu zuten ikurrina Arana-Goirik. Gure herriak ikur horren balioa onartu du urte hauetan.

Etsaiaren lardasketa-lana nabarmena izanik ere, ikurrina Euskal Herriaren sinboloa da.

Eta beste edozein nazio-ikurrek merezi duen errespetu bera merezi du.

**IXILLARDEGI**

IDAZLEA ETA EHU-KO IRAKASLEA

# BERRIAKZIRI



**GUILHERME DA CUNHA**  
UNHCko ordezkaritza Espainiar DEIA

«Gaur egun, ez dute Europar erregimen faxista bat ezar daitekeenik»



**PELLO LIZARRALDE**  
Idazlea EL DIARIO VASCO

«Benetako plazerra ez duk idaztea, benetako plazerra irakurtzea duk»



**JOSE LOPEZ**  
Marques de Domercqen ungarraizaria DIARIO DE NOTICIAS

«Hazitarrako zezen txar bat aukeratzeak hainbat urtetako lana honda dezake»



**ABRAHAM OLANO**  
Txinologiaritza EGN

«Oraingoz, bazter-tuta daukat sailkapen orokorrean pentsatzea»

# ZAKILIXUT

© Olariagak

